

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es



Kepa Larrea, pasa den asteazkenean, Iruñeko Alde Zaharrean.

BUXENS

KEPA LARREA EHU-KO IRAKASLE ETA HISTORIALARI

“Xabier Mina eta Simón Bolívar oso antzekoak ziren”

MINA EDO LIBERTATEA!

Egilea: Kepa Larrea
Argitaletxea: Pamiela
Orrialde: 224
Ale kopurua: 1.000
Salneurria: 18,50 €



BIBA MINA! KONTUAK ETA KANTUAK

Egilea: Kepa Larrea
Argitaletxea: Pamiela
Orrialde: 160
Ale kopurua: 1.000
Salneurria: 16 €



ere zerbait idatzi zuten berari buruz, eta hor ere aipatzen dute.

Manuel Ortuño kaleratu zuen biografiaren geroztik, bazegoen gehiago Minari buruz kontatzeko?

Ortuño ikerlan handia egin zuen, oso interesgarria eta aberatsa. Baina, egia esan, Nafarroan dena egiteko dago. Badago Orta Rubioren artikulua bat *Principe de Viana* aldizkarian, 1979koa. Nik uste dut lan serioena izan dela, baina horrez gero ez da ezer argitaratu. Pentsatu behar dugu Mina pertsonai nafarra eta unibertsala dela. Mexikarrek bere historia egin dute; Ortuño ere bere historia landu zuen, baina nik uste dut Espainiaren ikuspuntutik egin zuela. Batez ere, Ortuñori Nafarroari buruzko informazioa falta zitzaion. Saiatu naiz apur bat urruntzen orain arteko ikus-moldeetatik, nafar ikuspuntua eskainiz.

Nafarroan, Xabier Minaren eta Francisco Espoz izenen nahasketa aipatu behar da...

Bai, nik entzun nuen “Mina el mozo”, baina hain gutxi aipatu izan denez, pentsatzen nuen Mina garrantzi gutxiagoa zela. Francisco Espoz y Minak Xabier Minaren irudia estali nahi zuen eta horregatik ostu zion abizena, baina gerrillak sortu zirenean, Espoz bere aginduetara zegoen. Inork ez zuen aurrekusten Mina izango zela gerrillen burua. Egia da Mina “osaba” deitzen ziola Francisco Espozi, baina hirugarren gradu pariente zen. Espozek ez zeukan Mina abizenik. Iruñea askatzen saiatu ondoren, bide ezberdinetatik joan ziren. Hare gehiago, Espozek jakin zuenean Mina Ameriketara zihoala, orduan kritikatu zuen.

Zergatik?

Minak Mexikoren independentzia erreindikatzen zuen eta horrek Espainian ez zuen inork onartzen, ezta liberalek ere. Beraiak izan ziren Mina gehien kritikatu zutenek. Ez zioten inoiz barkatu Espainiar Inperioa apurtzeko asmoa. Nire ustez, Mina horregatik egon da hain ahaztua. Konparatzen baditugu, Xabier Mina eta Simón Bolívar oso antzekoak ziren. Euren borroka berbera zen.

Elkarrekin egon ziren Haitin.

Horko gobernu independentea, Pétion presidenteara, babesa eman zien Amerikako askatzalei. Mina irten zen Haititik Galvestonera eta gero Mexikora. Minaren atzetik, helburu berberarekin, Bolívar Venezuelara joan zen.

Mexikora iritsi baino lehen, Minaren bizitza odisea moduko bat izan zen: Frantzia espetxerata, Londresen exiliatuta...

Pelikuleetako heroi baten bizitza da. Ingalaterrara heldu zenean, ez zegoen erdi galdurik, bazituen bisak eta pasaportea. Lehen ministroaren bulegoraino joan zen. Bestalde, bazuen harremana Mexikon bizi ziren insurjentekin. Horien artean, baziren familia batzuk jatorri nafarra zutenak. Historia ofizialak esaten du Mina Ingalaterrara joan eta fray Servando mexikarrak konbentzitu zuela, baina nik uste dut lehendik ere zerbait egon behar zela. Batez ere Iruñeko kolpea eman ondoren, Espainiako agintariak susmatzen zuten Mina Ameriketara joango zela. Pentsatzeko da plangintza bat eginga zegoela.

Xabier Mina Mexikoren askatasunaren alde borrokatu zuen eta heroi nazionala bilakatu, baina Nafarroan ia ezezaguna da. Kepa Larreak nafar gerrillariari buruzko bi liburu kaleratu ditu

NEREA ALEJOS

Iruñea

Bizitza laburra baino oparoa izan zen Xabier Minarena (1789-1817). Nafarroan Napoleonen kontra borrokatu zen gerrillari buru, eta Fernando VII. aren kontra altxatu zen Iruñea askatu nahian. 1817an Mexikoren independentziaren alde borrokatu zuen zortzi hilabetez, fusilatu zuten arte, 28 urte zituela. “Xabier Mina hil eta handik lau urtera, Mexikok independentzia lortu zuen”, gogoratzen du Kepa Larreak, nafar gerrillariaren biografia landu duena, “nafar ikuspuntutik”. Horrekin batera, beste liburu bat kaleratu du Minari buruzko beste materialekin: herri kantak, ipuinak, olerkiak edo esamesak.

Nola ezagutu zenuen lehen aldiz Xabier Minaren historia?

Ameriketara egondako euskaldunak aztertzen ari nintzen eta bere izena agertu zen. Berehala topatu nuen Manuel Ortuño historialariaren tesia eta ikusi nuen Mina oso pertsonai erakargarria zela. Eta bere ezaugarriak ezagututa, hain gazte hil zutela, euskalduna, ikasia, Nafarroako gerrillen burua eta Mexikoko insurjenteen generala... Eta beste alde batetik, hain ezezaguna izatea! Nafarroa osoan kale bat baino gehiago ez dago bere izenean. Bere azkenetarik eskutitz bat euskaraz izan zen, Mexikon berarekin zegoen lagun bati zuzenduta. Preso zera-



Xabier Minaren erretratua (1816).

man hilabete bat eta orduan bazekien fusilatuko zutela. Eskutiz horretan esaten zien mexikarrei borrokan jarraitzeko askatasunaren alde.

Nola agertu zen eskutitz hau?

Ohar horren erreferentzia historiagile amerikanoei esker jaso dugu. Mina fusilatu eta handik hiru urtera, bere lehenengo biografia argitaratu zen Estatu Batuetan. Pentsa ezazu ze pertsona garrantzitsu izan zitekeen Mexikon eta Estatu Batuetan! William Robinson izan zen idazlea. Ez zuen Mina ezagutu, baina bai berarekin ibilitako gizonak. Berak jasotzen duenez, Minak ezkutu lortu zuen bere azken eskutitz hori pasatzea eta “nafar hizkuntzan” idatzi zuen. Gero, Minarekin ibilitako bi militarrek

ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

agenda

Urriak 23, astelehena

GARAIKIDE
Dantzagurea
Idurre Azkue eta Joseba Irazoki
Kondestable Civivoxeko Areto Gotikoa. 19:30. Prezioa: 5 €

Urriak 24, asteartea

Guraso eskola
HITZALDIA
Seme-alabekiko harreman onak: guraso guztien ametsa
Hizlaria: Elena Echalar, coach eta prestatzailea, PNLn aditua
Sanduzelaiko Civivoxa. 17:30. Sarrera libre

IPIUINAREN ORDUA
Kontalaria: Aitor Txarterina
4 urtetik gorako haurrei zuzenduta
San Pedroko liburutegi publikoa. 18:00. Sarrera libre

Urriak 25, asteazkena

BISITA GIDATUA
Donejakue bideko kondairak, pertsonaiak eta fundazioak
Frantziako Portalea. 12:00. Izen-ematea: 2 €

GARAIKIDE
Iragan perfektua
Horman Poster
Kondestable Civivoxeko Areto Gotikoa. 19:30. Prezioa: 5 €

Urriak 27, ostirala

Haurrendako gunea
HAURRENDAKO LANTEGIAK
6 - 12 urte
Kondestable Civivoxa. 17.15 - 19.15. Izen-ematea: 2 €. Aldez aurretik izena eman behar da edozein Civivox zentrotan: 2 €

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es